

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

3228

AGINDUA, 2025eko uztailaren 3koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko behin-behineko langile bat izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.1 artikulua, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19.1 a) eta 30.3 artikuluek eta aplikatzekoak diren gainerako arauak emandako ahalmenez baliatuta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorritik, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gorane Agirre Mandaluniz andrea komunikazio instituzionaleko aholkulari (kodea: 5223 dotazioa: 23 maila: zuzendaria) izendatzea Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailean.

Bigarrena.– Interesdunak aholkularitzako lanpostu baten berezko zereginak bete beharko ditu, bai eta bera atxikita dagoen arloko zeregin espezifikoak ere.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, baldin eta horretarako legez eskatzen diren eskakizunak betetzen baditu, Goi Kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 eta 5.1 artikuluetan bildutako aurreikuspenen bat edo guztiak aplika dakizkion.

Laugarrena.– Izendapen honek 2025eko uztailaren 3tik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak. Era berean, agindu honen bidez behin-behineko langile gisa ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki amaituta geratuko da langilea konfiantza- edo aholkularitza-funtzioa betetz beretzat lanean daukan agintariak kargua uzten duenean. Dena den, edozein unetan ezeztatu daiteke zerbitzu-harremana.

Bosgarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 3a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.